



Guraso agurgarriok,

Erandioko Udaleko Euskara Zerbitzuak, zuen hezitze-lanean lagungarri izango zaizuelakoan, **"ume elebidunen gurasoentzako gida"** helarazi nahi dizue. Era berean, **Argitxo-CD-ROMa** bidaltzen dizuegu, zuen umearen adinerako egokiak diren jolasak, kantanak eta kontuak bilduta, familia osoaren gozagarriko.

Opari hau aukeratu dugu jakin badakigulako jatea eta lo egitea bezain beharrezkoa dela jolastea. Haurrak jolasaren bidez ikasi egiten du eta gizartean aurrera egiteko jokabideak eta estrategiak bereganatzen ditu. Hizkuntza ere jolasa da. Lehen sei urteetan umea irrikaz dago ikasten dituen hitzekin jolasteko. Gurasook zenbat eta gehiago hitz egin, orduan eta hobeto ikasiko du bere pentsamenduak txukun adierazten.



Hezkuntza Sistemak berak, gero eta tarte handiagoa eskaintzen dio hizkuntzen ikasketari. Gure seme-alabak euskaldunak izatea erabaki badugu, hasieratik hainbat neurri hartzea komeni da. Ez dugu ahaztu behar euskara normalizazio prozesuan dagoela, gizartean oraindik presentzia eta indar gutxiagorekin. Horregatik **komenei da haurraren inguru hurbilean (lagunak, familia, zaintzailea, haur eskola...) euskarak presentzia izatea; baita jolasteko eta ikasteko erabiliko dituen ipuin, joko, musika, telebista eta abarretan ere** (gaur egun merkatuan eskaintza zabala dago www.katalogoa.org). Ez ahaztu, umea, hizkuntza ikasteaz gain, hizkuntza hori erabiltzeko ohiturak ere (norekin eta noiz erabiltzen dugun) bereganatzen ari dela. Hortaz, helduen artean euskaraz arituz gero, haurrak euskara baliozko tresna dela ikusiko du txikitatik.



Guk bidalitako CD-ROMaz gain, lagungarri izan ahal zaizkizuen beste hainbat material:

- Kontu txikiak, Sortzen-Ikasbatuaz (CD+liburua)
- Euskaraz mintza, jolas tailerrak, Sortzen-Ikasbatuaz (CD-liburua)
- Zatoz jolastera, Hik hasi (DVD)
- Jolasen altxorra, Hik hasi (DVD)
- Mixerri eta Mau. Ume katuak eta jolasak, Labayru ikastegia (DVD+liburua)



Era berean, gai honen inguruan antolatu dugun hitzaldirako gonbidapena bidaltzen dizuegu. Edozein zalantza argitzeko Euskara Zerbitzura jo ahal duzue: 94 48 90 128 / euskara@erandioko-udala.net

Beste barik, jaso ezazue agur bero bat

Alkatea
Joseba Gorkouria Zarraga





Estimados padres,

El Servicio de Euskera del Ayuntamiento os quiere hacer llegar **"la guía para padres y madres de niños y niñas bilingües"**, la cual contiene información que consideramos útil para que desarrolléis la labor de educadores que tenéis. Igualmente os enviamos el **CD-ROM Argitxo** que contiene tanto juegos como cuentos y canciones en euskera adecuados para la edad de vuestro hijo o hija, el cual esperamos disfrutéis toda la familia.

Hemos elegido este obsequio porque sabemos que para los niños y niñas, jugar es tan importante como comer y dormir. A través del juego las niñas y niños aprenden y asumen las conductas y estrategias para desarrollarse en sociedad. El idioma también es un juego. Durante sus primeros seis años, están deseando jugar con las palabras que aprenden. Cuanto más les hablemos, mejor aprenderán a expresar sus pensamientos y sentimientos.



El sistema educativo cada vez da más importancia al aprendizaje de idiomas. Si hemos decidido que nuestra hija o nuestro hijo sepa euskera, conviene que tomemos ciertas medidas desde un principio, ya que es un idioma en proceso de normalización que, hoy por hoy, tiene una presencia social menor que el castellano. **Es conveniente que el euskera tenga presencia en el entorno cercano (amistades, familia, cuidadores, actividades de tiempo libre y extraescolares...), así como con los cuentos juegos, música, televisión... Que consuma** (hoy en día existe una amplia oferta en el mercado, www.katalogoa.org) Aunque no sepáis euskera, de esta manera podéis transmitirle interés y aprecio por el idioma, ya que lo más agradable es hacerlo a través del juego y la música. Pensamos que el CD-ROM que os enviamos os será de ayuda para esta labor.

Os facilitamos alguno otro material que os puede ser de ayuda:



- Kontu txikiak, Sortzen-lkasbatuaz (CD+liburua)
- Euskaraz mintza, jolas tailerrak, Sortzen-lkasbatuaz (CD-liburua)
- Zatoz jolastera, Hik hasi (DVD)
- Jolasen altxorra, Hik hasi (DVD)
- Mixerri eta Mau. Ume katuak eta jolasak, Labayru ikastegia (DVD+liburua)



Igualmente os enviamos una invitación para la charla que hemos organizado con expertos sobre el tema. Para cualquier aclaración tenéis a vuestra disposición el Servicio de Euskera del Ayuntamiento: 94 48 90 128 / euskara@erandioko-udala.net

Sin otro particular, recibid un cordial saludo.

Alkatea
Joseba Gorkouria Zarraga

